## 5.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Moneta Fondoak (NMF) 2009-2012 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

## 5.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2009-2012 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

### 5.1. taula.- NMF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak
### Cuadro 5.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

| KONTZEPTUAK / CONCEPTOS | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|---|---|---|---|
| **BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)** | | | | |
| Mundu osoa / Total mundial | -0,7 | 5,1 | 4,0 | 4,0 |
| Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas | -3,7 | 3,1 | 1,6 | 1,9 |
| Estatu Batuak / Estados Unidos | -3,5 | 3,0 | 1,5 | 1,8 |
| Japonia / Japón | -6,3 | 4,0 | -0,5 | 2,3 |
| Erresuma Batua / Reino Unido | -4,9 | 1,4 | 1,1 | 1,6 |
| Euroaren eremua / Zona euro | -4,3 | 1,8 | 1,6 | 1,1 |
| Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / /Países en desarrollo y mercados emergentes | 2,8 | 7,3 | 6,4 | 6,1 |
| **KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)** | | | | |
| Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas | 0,1 | 1,6 | 2,6 | 1,4 |
| Estatu Batuak / Estados Unidos | -0,3 | 1,6 | 3,0 | 1,2 |
| Japonia / Japón | -1,4 | -0,7 | -0,4 | -0,5 |
| Erresuma Batua / Reino Unido | 2,1 | 3,3 | 4,5 | 2,4 |
| Euroaren eremua / Zona euro | 0,3 | 1,6 | 2,5 | 1,5 |
| Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / /Países en desarrollo y mercados emergentes | 5,2 | 6,1 | 7,5 | 5,9 |
| **LANGABEZIA / DESEMPLEO** | | | | |
| Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas | 8,0 | 8,3 | 7,9 | 7,9 |
| Estatu Batuak / Estados Unidos | 9,3 | 9,6 | 9,1 | 9,0 |
| Japonia / Japón | 5,1 | 5,1 | 4,9 | 4,8 |
| Erresuma Batua / Reino Unido | 7,5 | 7,9 | 7,8 | 7,8 |
| Euroaren eremua/ Zona euro | 9,4 | 10,1 | 9,9 | 9,9 |
| **MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ) COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)** | -10,7 | 12,8 | 7,5 | 5,8 |

Iturria: Nazioarteko Moneta Fondoa (NMF).
Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).

Aurten **2010erako nazioarteko testuinguruan** kontuan hartu diren datu eta aurreikuspenak hiru dezimal igo dira iazko irailean espero zen %4,8ren aldean. Zonen arabera aztertuz gero, joera desberdinak ikusi daitezke: garapen bidean dauden herrialdeak eta indartzen ari diren merkatuak dira hazkunde-tasa handiena dutenak (%7,3), nahiz eta beraien estimazioak dezimal bat jaitsi. Japonia puntu eta erdi igotzen da, %4,0ko tasarekin, eta Estatu Batuetan eta euro gunean aurreikuspenek okerrera egiten dute, dezimal bat eta bi dezimal, hurrenez hurren (%3,0 arte eta %1,8 arte, hurrenez hurren).

**2011rako aurreikuspenak** gorantz aldatu dira iazko irailetik aurtengo irailera, termino orokorretan. Munduko hazkunde osoari dagokionez, aurreikusita dago BPG %4,0 haztea (iaz %3,16ko hazkundea aurreikusi zen), eta horrek berarekin dakar dezelerazioa, 2010eko %5,1eko hazkundeari dagokionez. Estatu Batuetako ekonomian 0,4 puntu igo da aurreikusitako hazkunde tasa (%1,5eraino), aurreko ekitaldian izandakoa baino puntu bat eta sei dezimal gutxiago. Japoniak %1,0 jaitsi du (aurreikuspena %0,5eko hazkundea zen), hau da, 4,5 puntu gutxiago 2010ean baino. Euro guneak orain dela urtebeteko kalkuluak 0,5 puntu hobetu ditu, eta %1,6ko tasara iritsi da, pixka bat motelduz 2010erako kalkulatutako %1,8ko hazkundearekin alderatuz gero. Garapen bidean dauden herrialdeek eta indartzen ari diren merkatuek aurreikuspenak mantendu dituzte, eta hazkunde tasa handienak eman dituzte: %6,4.

Nazioarteko Moneta Fondoak (NMF) kaleratu duen azken txostenean adierazi duenez, **munduko ekonomiaren** indarberritzea mantsotu egin da, eta hazkunde erritmo bera mantenduko da **2012rako**: munduko batez besteko hazkundea %4,0 izango da, bai 2011rako eta baita 2012rako ere. Hazkunde hori hemen aztertutako eremu guztietan izango da, baina suspertze erritmoa aldatuko da ekonomiei nola eragin zaien kontuan hartuta: indartzen ari diren ekonomietan suspertzea nabarmena izango da, eta arazo gehiago izango diraekonomia aurreratuetan, hedapen askoz ere ahulagoarekin. Horrela, Estatu Batuetan %1,8ko hazkundea espero da. Ekonomia

Los datos y previsiones que se barajan en este año en el **contexto internacional para 2010** han subido tres décimas con respecto al 4,8% estimado en septiembre del año pasado. Analizando por zonas, se observan tendencias dispares: los países en desarrollo y mercados emergentes son los que presentan una mayor tasa de crecimiento (7,3%) aunque empeoran sus estimaciones en una décima. Japón sube un punto y medio, siendo su tasa del 4,0% y Estados Unidos y la zona euro empeoran en una y dos décimas, respectivamente, sus previsiones (hasta el 3,0% y 1,8%, respectivamente).

Las **previsiones para 2011** entre septiembre del año pasado y el año actual presentan modificaciones al alza, en términos generales. Para el total mundial se espera un crecimiento del PIB de un 4,0% (frente al crecimiento del 3,6% estimado el año pasado), implicando una desaceleración con respecto al crecimiento del 5,1% de 2010. La economía estadounidense mejora en 0,4 puntos su tasa de crecimiento esperada (hasta el 1,5%), un punto y seis décimas porcentuales menos que la tasa alcanzada en el ejercicio anterior. Japón baja un 1,0% (la previsión era de un crecimiento de 0,5%), 4,5 puntos menos que la obtenida en 2010. La zona euro mejora en las estimaciones de hace un año en 0,5 puntos hasta situarse en una tasa del 1,6%, ralentizándose ligeramente respecto al crecimiento estimado para 2010 del 1,8%. Los países en desarrollo y mercados emergentes mantienen sus previsiones, presentado las tasas de crecimiento más elevadas: 6,4%.

El Fondo Monetario Internacional en su último informe refleja que la situación de la **economía mundial** ve frenada su recuperación, manteniéndose el mismo ritmo de crecimiento para el **año 2012**, con un crecimiento medio del total mundial del 4,0% tanto para 2011 como para 2012. Este crecimiento se dará en todas las zonas analizadas, pero el ritmo de recuperación variará dependiendo de la manera que hayan sido afectadas las economías, con una notable recuperación en las economías emergentes y mayores problemas en las economías avanzadas, que experimentarían una expansión mucho más débil. Así, en Estados Unidos se

aurreratuek 3 dezimal igoko dute tasa, %1,9ko hazkundea izateraino. Euroaren eremuan 2 dezimal gutxiagotuko dela espero da, %1,1eko hazkundearekin. Garapen bidean dauden herrialdeetan eta indartzen ari diren herrialdeetan (%6,1), 3 dezimaleko murriztapena espero da; Japonian espero da suspertze biziena, 2,8 puntukoa (%2,3ko hazkundera iritsiko da), 2011ko tsunamiaren hondamendiaren ostean. Asian garapen bidean dauden ekonomiak izango dira, zalantzarik gabe, munduko indarberritze ekonomikoan lehenak, Txina eta Indian, adibidez, BPG %9,0 eta %7,5 haztea espero baita.

espera un crecimiento de 1,8%. Las economías avanzadas aumentarán su tasa en 3 décimas, hasta un crecimiento de 1,9%. En la zona euro se estima una bajada de 5 décimas, estimando un crecimiento del 1,1%. En los países en desarrollo y mercados emergentes (6,1%) se espera una disminución de 3 décimas y en Japón se espera la mayor recuperación, de 2,8 puntos (alcanzará un crecimiento del 2,3%), tras el desastre del tsunami de 2011. Las economías en desarrollo asiáticas son las que, sin duda, encabezarán la recuperación mundial, con países como China e India, en los que se prevé un crecimiento del PIB del 9,0% y 7,5%, respectivamente.

Bestetik, NMFren ustez, **prezioak** egonkor egongo dira 2012an. Horrela, inflazioa txikia izango da etengabeko gehiegizko ahalmenak eta langabezia tasa handiek eraginda, nahiz eta lehengaien prezioak igotzearen ondoriozko goranzko presioak izan. Espero da inflazio positiboaren urte arteko bariazio tasa %2,6 izatea ekonomia aurreratuetan. Tasa horrek behera egingo du datorren urtean (%1,4), lehengaien prezioek behera egitearekin batera. Aurreikuspenen arabera, Estatu Batuetan inflazioak gora egingo du %3,0raino (iaz %1,6 izan zen), eta espero da 2012an %1,2raino jaistea. Japonian %0,4 jaitsiko dira prezioak 2011n, eta %0,5 2012an. Euroaren eremurako aurreikuspenen arabera, 2011n %2,5 igoko da eta 2012an, aldiz, %1,5. Garapen bidean dauden herrialdeetan eta indartzen ari direnmerkatuetan, %7,5eko igoerak espero dira 2011n, eta %5,9koak 2012an.

Por otro lado, el FMI estima que **los precios** permanecerán relativamente estables a lo largo de 2012. De esta manera, se proyecta que la inflación se mantendrá baja ante el continuo exceso de capacidad y las altas tasas de desempleo y pese a las presiones alcistas derivadas de la recuperación de los precios de las materias primas. Se prevé una tasa de variación interanual de la inflación positiva del 2,6% en las economías avanzadas, tasa que se prevé disminuya para el año que viene (1,4%), junto con la caída esperada del precio de las materias primas. Se espera que en Estados Unidos la inflación aumente hasta el 3,0% (frente al 1,6% del año anterior), tasa que descenderá hasta el 1,2% en 2012. En Japón bajarán los precios un 0,4% en el año 2011, y un 0,5% en el año 2012. Las previsiones para la zona euro son de subida del 2,5% en el año y del 1,5% en el año 2012. Para los países en desarrollo y mercados emergentes se prevén subidas del 7,5% para 2011 y 5,9% para 2012.

**Lan merkatuaren** bilakaerari buruzko aurreikuspenen arabera, langabezia maila mantenduko da eremu guztietan. Ekonomia aurreratuetan ia ez du behera egingo langabeziak: %8,3tik 2010ean %7,9ra 2012an. Estatu Batuetan joera bera izango da, 2010eko %9,6tik 2012ko %9,0ra aldatuko da. Beraz, langabezia handieneko eremu bat izaten jarraituko du, euro gunearekin batera. Japonian ia ez da aurreikusten langabezia maila aldatzea, 2010ean %5,1eko tasak eta 2012an %4,8koak espero baitira, baina langabezia tasa txikienak ditu ekonomia aurreratuenen artean. Erresuma Batuan bere horretan geratu da: %7,9ko

Las previsiones de la evolución del **mercado de trabajo** son de mantenimiento de las cotas de desempleo en todas las zonas. El desempleo en las economías avanzadas apenas descenderá, pasando del 8,3% en 2010 al 7,9% en 2012. En Estados Unidos se sigue la misma tendencia, con un descenso del 9,6% de 2010 al 9,0% en 2012, con lo que sigue siendo una de las zonas con nivel de desempleo más alto, junto a la eurozona. En Japón, apenas se prevé un cambio en nivel de desempleo, ya que se prevén tasas del 5,1% en 2010 y del 4,8% en 2012, pero ostenta las tasas de desempleo más bajas de entre las economías avanzadas. En el

langabezia tasa 2010ean eta %7,8 izango da 2011n eta 2012an. Euroaren eremuan tasa handienak izango dira: %10,1eko tasa 2010ean eta %9,9koa 2011n eta 2012an.

**Munduko merkataritzak** zertxobait gorantz zuzendu behar izan du iazko irailean egindako aurreikuspena: aurten %7,0 hazi beharrean, %7,5eko hazkundea espero da. 2012ko aurreikuspena da merkataritza %5,8 haziko dela.

**Espainiako ekonomiari** dagokionez, adierazi behar da aurtengo apirilean eguneratutako Gobernuaren proiekzio makroekonomikoak ditugula (oraingoz Estatuko Aurrekontu Orokorren proiekturik ez baitago, eta bertan eguneratzen baitira adierazle horientzako aurreikuspenak). BPGri dagokionez, mantendu egiten dira egindako proiekzioak; %1,3 haziko da, iazko irailean aurreikusita bezala. 2012rako aurreikuspenen arabera, jarduera ekonomikoa %2,3 igoko da (itxaropenak positiboagoak NMFrenak baino, azken horrenak %1,1 baitira), eta atzeralditik urrunduko da, batez ere kapital finkoaren formazio gordinak eta esportazioek eraginda. Espero da kanpoko eskari garbiak 2011n produktua 1,3 puntu igotzen laguntzea, eta 2012n 1,0 puntu.

**Barruko eskaerari** dagokionez, nabarmentzekoa da kapital finkoaren inbertsiorako espero den murriztapena, batez ere eraikuntzan izandako jaitsieragatik, nahiz eta aurreikusita egon ekipo ondasunen inbertsioa suspertzea. Kontsumo pribatuari dagokionez, aurreikusita dago 2011n pixka bat igotzea (%0,9) eta igoera are handiagoa izatea 2012an (%1,4). Bestetik, herri administrazioen amaierako kontsumoko gastua mantsotu egingo da, defizit publikoari aurre egiteko neurrien ondorioz: %1,3ko atzerakada espero da 2011n (2010eko %-0,7ren aldean) eta %0,8ko jaitsiera 2012an..

Reino Unido se observa un estancamiento, con una tasa de desempleo del 7,9% en el año 2010 y del 7,8% para 2011 y 2012. En la zona euro se registran las tasas más elevadas, ya que se espera una tasa del 10,1% en 2010 y del 9,9% en 2011 y 2012.

**El comercio mundial** se ha visto corregido ligeramente al alza respecto a lo esperado en septiembre del año pasado: en lugar de un crecimiento del 7,0% para este año se considera un crecimiento del 7,5%. La previsión para 2012 es de un crecimiento del 5,8%.

Respecto a **la economía española**, cabe señalar que a la fecha se cuenta con las proyecciones macroeconómicas del Gobierno actualizadas a abril del presente año (al no existir de momento proyecto de Presupuestos Generales del Estado, en el cual se actualizan las previsiones para estos indicadores). En cuanto a PIB, se mantienen las proyecciones realizadas, estimando que éste crecerá un 1,3%, tasa prevista en septiembre del año pasado. Las previsiones para 2012 son de una subida en la actividad económica del 2,3% (expectativas más positivas que las del FMI, que la sitúan en un 1,1%), alejándose de la recesión debido, sobre todo, al tirón de la formación bruta de capital fijo, como de las exportaciones. Se espera que la demanda exterior neta contribuya al crecimiento del producto 1,3 puntos en 2011 y 1,0 puntos en 2012.

Dentro de la **demanda interna** destaca el retroceso previsto para la inversión en capital fijo, sobre todo por el descenso en la construcción, a pesar de que se prevé una recuperación de la inversión en bienes de equipo. En relación al consumo privado, se prevé una ligera subida en 2011 (0,9%) con un crecimiento más marcado en 2012, donde crecerá el 1,4%. Por su parte, el gasto en consumo final de las Administraciones Públicas también se retraerá, debido a las medidas para paliar el déficit público, estimándose un retroceso del 1,3% en 2011 (frente al -0,7% de 2010) y un descenso del 0,8% ya en 2012.

**5.2. taula.- Estatuko proiekzio makroekonomikoak**

**Cuadro 5.2.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado**

| KONTZEPTUAK / CONCEPTOS | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|---|---|---|
| BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ )/ PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL) | | | |
| Amaierako kontsumo nazionalaren gastua / Gasto en consumo final nacional | 0,7 | 0,4 | 0,9 |
| -Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1) | 1,2 | 0,9 | 1,4 |
| -Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público | -0,7 | -1,3 | -0,8 |
| Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital | -7,0 | -1,2 | 2,7 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina / Formación Bruta Capital Fijo | -7,6 | -1,3 | 2,7 |
| -Ekipo ondasunak eta beste produktu / Bienes de equipo y otros productos | -2,4 | 3,2 | 5,2 |
| -Eraikunza / Construcción | -11,1 | -4,7 | 0,7 |
| Izakinen bariazioa / Variación existencias (2) | 0,1 | 0,0 | 0,0 |
| Barruko eskaria/ Demanda interna | -1,2 | 0,0 | 1,3 |
| Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios | 10,3 | 8,3 | 7,9 |
| Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios | 5,4 | 3,0 | 4,1 |
| Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2) | 1,1 | 1,3 | 1,0 |
| Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto | -0,1 | 1,3 | 2,3 |
| BPG (m.m. euro korrontetan) / PIB (m.m. euros corrientes) | 1.062,6 | 1.089,9 | 1.131,4 |
| PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %) | | | |
| BPGren deflaktatzailea / Deflactor del PIB | 1,0 | 1,2 | 1,5 |
| LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO | | | |
| Enplegua, guztira ( bariaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %) | -2,4 | 0,2 | 1,4 |
| Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa) | 20,1 | 19,8 | 18,5 |

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

**Kanpoko eskariaren** barruan, aurreikusita dago ondasun eta zerbitzuen esportazioak suspertzea 2011n zehar, %8,3ko tasarekin, eta zerbait gutxiago 2012an, batez besteko %7,9ko gehikuntzarekin. Bestetik, inportazioak igo egin dira, erritmoa moderatu badute ere, 2010ean %5,4ko tasa eman ondoren 2011n hazkundea mantsoagoa izatea aurreikusten baita (%3,0), berriro ere indarra hartuz 2012an (%4,1). Hala ere, kanpoko sektoreak ekonomia espainiarraren hazkundeari egiten dion ekarpena geroz eta txikiagoa izango da datozen urteetan.

Aurten, aurreikusitako **inflazioa** dela eta, BPGren deflaktatzailea %1,2 izango da, 2010eko tasa baino bi dezimal txikiagoa. Halere, espero da 2011n prezioak gehiago igotzea, %2,8ko inflazioarekin, 2010ean erregistratutakoarekin parekatuz.

**Lan merkatuari** dagokionez, aurreikuspena da okupazioa hazten hasiko dela 2011n (%0,2), eta 2012an %1,4 suspertuko dela. Langabezia, bestalde, hiru

Dentro de la **demanda externa**, se prevé una recuperación de las exportaciones de bienes y servicios durante 2011 del 8,3% y algo menor en 2012, con un incremento medio de 7,9%. Por su parte, las importaciones crecen, aunque moderando su ritmo, ya que tras registrar una tasa del 5,4% en 2010, se prevé que crezcan más lentamente en 2011 (3,0%) y más vigorosamente en 2012 (4,1%). No obstante, la contribución del sector exterior al crecimiento de la economía española se prevé que vaya decreciendo en los próximos años.

En el presente año **la inflación** prevista sitúa el deflactor del PIB en el 1,2%, dos décimas superior a la tasa alcanzada en 2010. Sin embargo, se prevé un aumento de los precios en 2011 superior, con una inflación en un 2,8%, que equipara a la registrada en 2010.

Con respecto al **mercado laboral** se estima que la ocupación comenzará a crecer en 2011 (0,2%), para recuperarse un 1,4%, ya en 2012. La tasa de paro, por su parte, disminuirá

dezimal jaitsiko da aurten, %19,8ko tasarekin, eta puntu bat eta hiru dezimal jaitsiko da berriz ere 2012an, %18,5eko tasarekin.

**Gipuzkoako ekonomiari** dagokionez, 2012an ingurukoa baino hazkunde handiagoa espero da: barne produktu gordina %1,4 inguru haziko da termino errealetan, eta %,3,6 inguru termino korronteetan.

tres décimas este año, situándose en el 19,8%, y volverá a descender en un punto y tres décimas en 2012 hasta el 18,5%.

Por lo que se refiere a **la economía guipuzcoana**, en 2012 se estima un crecimiento ligeramente superior al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 1,4% en términos reales y del 3,6% medido en términos corrientes.